

Ibone Aiestaran Llorente


A maila • 2 saria

Ibone naiz, 2000ko uztailaren 9an mundura iritsi zen Ordiziarra, eta iritsitako gogo berdinekin bizitzen jarraitzen duen herritarra.

Urteak daramatzat irakasle edo beste norbaitek behartuta irakurtzen eta noski idazten, baina gutxi aldiz bihotzetik ateratako bulkada baten aginduz berdina egiten, liburu honetako idazlan guztiak idatzita dauden bezalaxe, bihotzez idazten.

Hori da, hain zuzen ere, niri bezalaxe beste askori gogoz bizitzen jarraitzen laguntzen diguna, bihotzetik ateratako bulkadek agindutakoa egitea, edozer maitasunez eta atseginez egitea, idatzi, irakurri edo dena delakoa.

Beraz guztiek idatzi dugun plazer berdinarekin zuek liburuko lanak irakurtzea eskertuko nizueke, beno, genizueke.



MUNDAKAKO PORTUAN

Leihoko zirrikitutik eguzki-izpi itsugarri bat sartu da, gaurko azkenetarikoa izateko itxura duena. Egun guztia pikutara bota dudala ez jakiteko ordularia begiratu gabe jaiki eta sukaldera joan naiz, egunero bezala, baina ez eguneroko orduan. Buru barrura begiratu dut baina ez dut ezer aurkitzen, ez dut atzoko gau zorua gogoratzen.

Sukaldean emaztea eta alaba daude, hauek bai beti bezala, Gaur Egunen konpainiaz bata afaria prestatzen eta bestea ikastolako lanak egiten. Bai, udaran, ikastolako lanak egiten.

- Egun on! Ez, barkatu, arratsalde on! - denbora nozioa galduta dut.

- Arratsaldeon bai! - muxu batekin batera.

Mahai ondoko aulkian eseri naiz, telebistari begira, baina inora begiratu gabe. Ez dakit zenbat denbora pasa dudan modu horretan, eta azkenaldian modan dagoen berri batek mundu errelera itzultzea egin dit. Emakume bat bortxatu dute bart gauean Donostiako Aste Nagusian. Hiru bortxatzailearen artean egin omen dute lan, eta frogak dituzte antza nor izan diren aurkitzeko: hirurak hogeita hamabost urtetik gorako gizonak, haietako bi labanekin armatuak, eta bata lepoan orbaina eta besteak eskuineko besoan lehoi baten tatuajea duela, nirea bezalakoa, kasualitatez.

- Munduan horrelako pertsonak egon behar - etsipenez emazteak - ez dugu inoiz honekin amaituko.

- Harrapatuko dituzte, lasai - alferrikako baretzeko ahaleginak egin ditut.

- Harrapatu ez, zakila moztu beharko liekete! Ondo erabiltzen ez jakiteagatik! Lotsagabe halakoak! - betiko konponbidea.

- Hara, Ane, utzi etxeko lanak eta lagundu aitatxori mahaia jartzen.

- Itxaron, hau bukatu behar dut.

- Ia hilabete duzu bukatzeko maitea, egin kasu amari. - betiko gatazka.

Afaria isila izan da, bata buruan bortxatzaileei buruz kristorenak esaten, bestea etxeko lanetan pentsatzen, eta ni nire munduan, sekulako ajearekin. Deserta amaitu, harrikoa egin, erratza pasa eta telebistara joan gara hirurak, zein kanal jarri adostu ezinik, betiko gatazka hau ere. Alabak irabazi du oraingoan eta La Sextako film bat ikusi dugu, beno ikusi, lehenengo minutuan lo hartu dudala uste dut.

Ez dakit esaten zenbat denbora pasa dudan atzetuta, ordu bete agian, eta belarrietatik harramazkaka bezala sartu den mugikorraren soinuak esnatu nau. Nor demontre ari da garai hauetan deitzen? Kostata, baina sukaldera joan naiz erantzutera. Ez dut zenbakia ezagutzen:

- Bai?

- Fran! Miguel naiz! - ahotsa ezezaguna da.

- Miguel? Ezagutzen al zaitut?

- Bai gizona! Atzo ezagutu genuen elkar. - lagun mina izango balitz bezala hitz egiten du.

- Barkatuko didazu baina ez naiz ezertaz gogoratzen.

- Nola ez zarela ezertaz gogoratzen? - txantxetan nabilena uste du.

- Utz ezazu, ez du axola. Zer nahi duzu?

- Telebistan agertu garela esan nahi nizun! Famatuak gara!

- Zer? Telebistan? Ez dut ezer ulertzen, zenbakiz nahastu zarela uste dut. Agur. - zer nahiko ote du gizon honek?

Egongelara itzuli naiz, pelikula ikustera edo lo egitera, ez dakit.

- Nor zen? - emazteak xuxurlaka telebistaren soinuari ez irabazteko. Gorroto du Anek hau ikusten ari den bitartean besteak hitz egiten egotea.

- Inor ez, zenbakiz nahastu dira.

Ohera joan beharko nuke, lipar batean lo hartu baitut berriro ere, baina denbora gutxirako oraingoan, bestea bezala belarritik harramazkaka sartu den mugikorraren soinuak esnatu baitit beste behin, eta sukaldarantz abiatu naiz, umore txarragoaz honetan. Zenbaki bera da:

- Esan dizut ez dakidala zertaz ari zaren!

- Garrantzitsua da Fran! - ahots ezberdina du, zoroetxetik irtendako baten modukoa, beste pertsona bat da.

- Nola garrantzitsua dela? Nor zara?

- Javi naiz. Atzo ezagutu zenuen Javi, Miguelen laguna. - beste lagun min bat.

- Ez dakit nor zareten ez zu ez zure laguntxo hori! Baina tira, esan nahi didazue zer gertatzen den?

- Berrietan atera garela! Atzokoagatik!
- Nola atzokoagatik?
- Bai Fran! Bortxatzaile famatuak gara!
- Zer?
- Lepoan orbaina duena eta besoan lehoiaren tatuajea besteak! Geu gara!

Ordularia begiratu dut. Goizeko bostak dira. Etxera joateko ordua. Parte zaharrean nago.

- Leire! Etxera noa, bazkaria dut familiarekin. Ondo bukatu gaua!
- Bai, berdin Itziar! Bihar arte!

Geltokirako bidea hartu dut. Parte zaharretik atera, ibai ondotik tren geltokiko zubiraino...

- Aaaaah!- atari batetik bat-batean magiaz bezala atera den esku batek barrura eraman nau. Ilun dago dena, ez dut ezer ikusten, beldur naiz, gaua gaizki bukatzeko dauden aukera guztiak etortzen zaizkit burura, eta tartean, noizbehinka, hau bezalako atalondo batean gerta daitezkeen gauza onak, alegia, bat edo bi gehienez.

Segundoak pasa ahala hobeto ikustea lortzen ari naiz, baina, ikusten ari naizenagatik, nahiago nuke itsu geratu. Hiru pertsona bereizten ditut, bi zutik eskuan labana baten antza duen zerbaitekin, eta hirugarren bat lurrean botata, ez dakit, hilda, mozkortuta, edo nola, eta ni, gero eta beldurtuago. Zutik dagoenetako bat gerturatzen hasi da. Gizona da, berrogei bat urtekoa, ile zuria, 1,70 inguru, lepoan jertse barrura sartzen den orbain bat... lanbideak erakutsi didana egiten hasi naiz, frogak bilatzen. Eskua nire lepora gerturatu du, arrazoi nuen, labana bat da, eta hau nire azalean sentitzeak beldurtu baino gehiago, urduri jarri nau.

Eskuak inoiz baino dardartiago ditut. Gizonaren ahotik ateratzen den arnasa nire aurpegiaren alde batean sentitzen hasi naiz. Kosta egin zait konturatzea arnas hori aginduak direla, gaua gaizki bukatzeko burutik pasa zaizkidan aukera horietako batean agertzen diren aginduak, prakak kentzeko aginduak, biluzteko aginduak. Eskuak gerrikora eraman ditut, kostata, baina eraman ditut, eta bertan utzi ditut pixka batean, blokeatuta, beste gizona etorri eta labana lepoaren beste aldean jarri didan arte. Honek lehenengoak baino gazteagoa ematen du, hogeita hamabost bat urte agian, ile iluna, 1,80 inguru, baina bereizten duen markarik gabe. Gerrikoa askatu, praken botoia askatu eta pixkanaka jaitsi behar izan ditut kuleroekin batera. Orduan hirugarren gizona altxatu da. Ez dago hilda, mozkortuta baizik, baina zutik mantentzeko gai da, eta niregana hurbildu da. Tatuaje bat dauka eskuineko besoan, lehoi baten tatuaje bat, gizon nazkagarri honen besoan egotea tokatu zaion lehoi baten tatuajea. Bere esku zatarrekin nire gorputzeko atal sekretuenak laztantzen hasi da, niretzako ere sekretuak diren atal horiek laztanekin batere antza ez duten mugimenduekin ukitzen. Labanak hartu eta hiruen lepoa mozteko ideia pasa zait burutik, baina eskuek mugiezin jarraitzen dute, ezin dut ezer egin.

Aurpegiaren beste aldean haizea sentitu dut, aurrekoan bezala agindua dela konturatzea kosta zaidan haizea, lurrean etzateko agindua daraman haizea. Labanak gero eta gehiago sentitzen ditut lepoan, beraz hau ere bete egin dut, baina begiak itxita, ez dut nahi inguruan gertatzen den ezer ikusi. Etzanda jarri ahala sentitu dut hirugarren gizonaren pisua nire gainera erortzen, baina handiagoa da bihotzean sentitzen dudana, pisua edo mina, ez dakit zer den. Segituan desagertu da sentsazio arraro hori, eta burua ametsetan hasi zait, inoiz izan dudana ametsik sakonena. Ken Zazpiren kanta bat etorri zait burura, nire kanta gustukoenetako bat, "Iluntzean", bizitzen ari naizen errealitate nazkagarri honetatik ihes egiten lagundu didan kanta: Mundakako portuan nago. Eskuan zigarro bat dudala ihesi noa urrutira olatu gainean.

Bidean, izar bat aurkitu dut zeruan, beste askoren artean, nire izarra, sufritzez utzi nauen izarra, eta irribarre bat marraztu zait aurpegian, inoiz marraztu zaidan irribarrerik handiena, bizirik sentiarazi nauen irribarrea.

Pentsatu ezinik gelditu naiz, burua hutsik. Zer arraio egin nuen atzo gauean? Betidanik daramat bortxatzaileei buruz sekulakoak esaten eta atzo beraietako bat bihurtu nintzen, ni, nire bizitzari zentzua ematen dien emakume baten senarra eta bestearen aita. Komunera joan naiz zer egin jakin gabe. Besoa begiratu dut lehoiak bertan jarraitzen duela ziurtatzeko, eta zoritxarrez, ez du alde egin. Aurpegia busti dut urarekin amesgaizto batetik esnatu nahiko banu bezala, baina ez da ezer gertatu, amesgaiztoa da une honetan bizi dudan errealitate nazkagarri hau.

Polizari deitzeko ideia bururatu zait, kontu honekin lehenbailehen bukatzeko. Ez dakit, zalantza asko ditut. Agian hobe da lehenengo familiari kontatzea. Zalantzak ere honen inguruan. Zertan pentsatzen arituko nintzen momentu hartan? Beno, erantzuna erraza da, ezertan ez. Ergel halakoa!

Zer egin jakin gabe jarraitu dut, zentzuzkoa den bezala Googlek egoera hauetan ez baitu laguntzarik eskaintzen. Lehenago edo beranduago etorriko dira nire bila, epaitegi batera eramateko, eta ez badut etxean ezer esaten, ez naute inoiz barkatuko. Aitzitik, hitz egiteak konponduko al du egoera? Hala bihotzik gabeko matxista hutsa naizela pentsatuko dute berdin-berdin? Nolanahi ere, kontzientzia lasai geratuko zait, emakume bat bortxatu eta bere bizia izorratu ondoren geratu daitekeen lasaien.

Mugikorreko deiak jada bukatu dira, baina egongelatik datozenak hasi dira, eta ez dira askoz atseginagoak. Egia aitortu behar diet, hori da hartu dudan erabakia, erabaki zentzudunena. Baina nola? Pertsona errugabe gehiago mintzea da nahi dudana azken gauza. Erabakitasunez abiatu naiz beraiengana. Bidean, ordea, garai honetan gutxien desio dudana jazo da, txirrina jo dute:

-Polizia! Ireki atea mesedez!